

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Portugaleteko Udala

Ayuntamiento de Portugalete

2020





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK	7
I. SARRERA	9
II. IRITZIA.....	10
II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	10
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA	10
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI	
BURUZKO IRIZPENAK	11
III.1 UDALA ETA TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOA	11
III.1.1 Aurrekontua eta kontabilitatea.....	11
III.1.2 Langileria.....	11
III.1.3 Kontratazioa.....	12
III.1.4 Berandutza eta beste alderdi batzuk.....	13
III.2 SOZIJETATE PUBLIKOAK	13
III.2.1 Kontratazioa.....	13
III.2.2 Beste batzuk.....	13
IV. FINANTZAREN ANALISIA	15
V. URTEKO KONTUAK.....	18
V.1 UDALA.....	18
V.2 UDAL HAURTZAINDEGIA ERAKUNDE AUTONOMOA.....	21
V.3 SOZIJETATE PUBLIKOAK	23



ERANSKINAK	25
A.1 Erakunde fiskalizatuaren izaera eta araudi aplikagarria	25
A.2 Aurrekontua eta aurrekontuko aldaketak	26
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak	27
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak	28
A.5 Inbertsio errealen besterentzea	29
A.6 Pertsonaleko gastuak	30
A.7 Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioa	32
A.8 Transferentziak eta emandako dirulaguntzak	33
A.9 Ibilgetua eta Lurraren Ondare Publikoa	34
A.10 Pasibo finantzarioak	35
A.11 Aurrekontuko zordunak	36
A.12 Diruzaintza	36
A.13 Aurrekontuz kanpoko eragiketak	37
A.14 Kontratazioaren analisia	37
A.15 Tokiko Sozietate publikoak	39
A.15.1 Langileria	39
A.15.2 Kontratazio espedienteak	39
A.15.3 DEMUPORSA Sozietate Publikoa	40
A.15.4 SURPOSA Sozietate Publikoa	41
ALEGAZIOAK	43



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS	45
I. INTRODUCCIÓN	47
II. OPINIÓN.....	49
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD.....	49
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES	49
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	50
III.1 AYUNTAMIENTO Y ORGANISMO AUTÓNOMO.....	50
III.1.1 Presupuesto y Contabilidad	50
III.1.2 Personal	50
III.1.3 Contratación	51
III.1.4 Morosidad y otros aspectos	52
III.2 SOCIEDADES PÚBLICAS	52
III.2.1 Contratación	52
III.2.2 Otros.....	52
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	54
V. CUENTAS ANUALES	57
V.1 AYUNTAMIENTO.....	57
V.2 ORGANISMO AUTÓNOMO GUARDERÍA MUNICIPAL.....	60
V.3 SOCIEDADES PÚBLICAS	62



ANEXOS	65
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y normativa aplicable.....	65
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias	66
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos.....	67
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones.....	68
A.5 Enajenación de inversiones reales	69
A.6 Gastos de personal.....	70
A.7 Compra de bienes corrientes y servicios	72
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas	73
A.9 Inmovilizado y Patrimonio Público del Suelo	74
A.10 Pasivos financieros.....	75
A.11 Deudores presupuestarios	76
A.12 Tesorería	76
A.13 Operaciones extrapresupuestarias	77
A.14 Análisis de contratación	77
A.15 Sociedades Públicas Locales.....	79
A.15.1 Personal	79
A.15.2 Expedientes de contratación.....	79
A.15.3 Sociedad Pública DEMUPORSA.....	80
A.15.4 Sociedad Pública SURPOSA.....	81
ALEGACIONES	83

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 26a

Vitoria-Gasteiz, 26 de mayo de 2022



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

AHM	Arautze Harmonizatuari Lotua.
BABA	Baldintza Administratibo Berezien Agiria.
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BBUP	Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
EA	Erakunde Autonomoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EFPL	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
EIOZ	Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zerga.
EPE	Enplegu Publikoaren Eskaintza.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
HBGZ	Hiri Izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan-programak agindutakoari jarraikiz, Portugaleteko Udalaren 2020ko Kontu Orokorren fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEk gauzatutako Portugaleteko Udalaren Kontu Orokorren aurreko fiskalizazio lana 2014ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkotasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.

- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorra honako atal hauek besarkatzen ditu: Udalaren, erakunde autonomoaren eta sozietate publikoen egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta memoria; baita Udalaren eta bere erakunde autonomoaren aurrekontuen likidazioa ere.

Sozietate publikoen kontuei dagokienez, gure lana kanpoko enpresek gauzatutako auditoretzako txostenak aztertzea izan da eta horretarako, beharrezko irizitako proba osagarriak edo auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.

- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Alabaina, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak Txosten honen III. Idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Portugaleteko udalerriak 45.746 biztanle ditu 2020ko urtarrilaren 1eko eroldaren arabera eta bere egituran, Udalez gain, honako hauek besarkatzen ditu:

- Haurrentzako Gizarte Zerbitzuen Udal Fundazioa – Txikitxu, aurrerantzean Udal Haurtzaindegia erakunde autonomoa.
- Deportiva Municipal de Portugalete SA, aurrerantzean, DEMUPORSA: Portugaleteko udalerrian dauden kirol-instalazioekin, kirolaren sustapenarekin eta kirolarien prestakuntzarekin, eta era guztietako kirol-lehiaketekin, mantentze fisiko eta ludikoekin eta pertsona fisikoen aisialdiarekin lotutako era guztietako jarduerak garatzea du helburu (% 100 udal-titulartasunekoa).
- Portugaleteko Berregokitzapenerako Hirigintza Sozietatea SA, aurrerantzean SURPOSA. Sozietatearen helburua hirigintza izaerako zaharberritze jarduerak garatzea da (% 100 udal-titulartasunekoa).

Halaber, Portugaleteko Udala Nerbioi itsasadarraren Ezkerraldeko Udalerrien Mankomunitateko eta Ranzari tailerra-Minusbaliatu Psikikoen Aldeko Udal Mankomunitateko kide da.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Kontratazioa

1. Udalaren argiteria publikoko instalazioetan energia elektrikoa hornitzeko eta sareetarako sarbidea izateko kontratuak, erakunde autonomoa eta Udalaren partaidetza osoa duten sozietateak barne, 2017an esleitu zen eta egikaritzen jarraitu du 2019ko martxoaren 31n iraungi ondoren. 2020ko ekitaldian kontratu estaldurarik gabe guztira egikaritutako gastua 1,2 milioi euro izan da (ikus A.14).
2. Udalak eta DEMUPORSAk 79.524 eta 147.858 euroren gastuak egin dituzte, hurrenez hurren, inolako kontratazio-prozedurarik izapidetu Gabe; ordea, zenbatekoaren arabera, bi kasutan prozedura ireki sinplifikatuaren bidez eta bestean prozedura irekiaren bidez lizitatu behar ziratekeen (ikus A.14 eta A.15.2).

Diru-Sarrerak

3. Kirol jardueri dagozkien tarifak DEMUPORSaren administrazio-kontseiluak onartzen ditu eta ez Udalbatzak, Tokiko Udalbatzen Zerbitzu-erregelamenduaren 148. artikulua agintzen duen moduan.

Epaitegi honen iritzira, Portugaleteko Udalak, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2020ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- Egoera Balantzeko Ibilgetu materiala eta Lurzoruaren Ondare Publikoa osatzen duten ondasunen balioak eta Ondasunen eta Eskubideen Udal Inbentarioko ondasunen balioak 10,4 milioi euroren alde dute 2020ko abenduaren 31n, eta ez dago alde hori justifikatzen duen ondasunen xehakapenik (ikus A.9).

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan adierazitako salbuespena alde batera, Portugaleteko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2020ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 UDALA ETA TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOA

III.1.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- “Aurrekontuz kanpoko beste hartzekodun batzuk” kontzeptuak 2014a baino lehenagoko eta identifikatu gabeko hirugarrenen zenbatekoak barne hartzen ditu. Komeniko litzateke jatorria aztertu eta identifikatzea, eta itzultzea edo erregularizatzea, aurrekontu arruntean sartuta.
- Nahiz Udalak bere jabetzakoak diren Ondasun eta Eskubideen inbentarioa duen, 2005eko ekainaren 30eko Udalbatzak onartutakoa, inbentario hori ez da urtero onartzen.
- Udalaren 2020ko ekitaldiko Aurrekontuko Likidazioak ez du konpromiso kredituen egoera barne hartzen: 2020ko abenduaren 31n 2021eko ekitaldiaren kontura baliatutako kredituak atzeman dira, 755.213 eurorenak, 2020ko abuztuan esleitutako obra-kontratu bati dagozkionak.

III.1.2 LANGILERIA

- Ez dira BAOan argitaratu Udalaren eta Erakunde Autonomoaren zerbitzura diharduten langileen lan-baldintzak, 2020ko ekitaldian indarrean daudenak.
- Udalaren LZk lan-kontratuko langile finkoentzat gordetako 60 lanpostu jasotzen ditu, eta horien ezaugarriak ez datoz bat funtzio publikoaren araudian ezarritakoarekin.
- 2020ko ekitaldian Udalak indarrean duen LZk 2020ko abenduaren 31n hutsik dauden 160 lanpostu barne hartzen ditu; horietatik 47 bitarteko funtzionarioek betetzen dituzte eta 72 bitarteko lan-kontratuko langileek; lanpostu horiek ez dira azken ekitaldietako Enplegu Publikoko Eskaintzetan edo behin betiko betetzeko deialdietan sartu.
- 2020ko abenduaren 31n, obra edo zerbitzu jakin baterako 4 kontratu eta programako 7 bitarteko funtzionario-izendapen daude indarrean, 2016. urtea baino lehenagokoak. Aldi baterako kontratazioak eta aldi baterako programen exekuzioak ez dute 3 urte baino gehiagokoak izan behar.
- Udalak ez du gauzatutako egintzen nahikoa euskarri edo ebidentziarik uzten, aldi baterako kontratazioetarako lan poltsak zuzen kudeatu direla egiaztatzeko.

Langileen beharrak betetzeko erabiltzen diren lan-poltsen behin-behinekotasun maila eta antzinasuna kontuan hartuta, Udalak beharrezko hautaketa-prozesuak abiarazi beharko litzuzke plantilla egonkortu eta aipatutako poltsak berriro ahal izateko.



III.1.3 KONTRATAZIOA

Kontratazio-espedienteak

Udalaren kontratazio administratiboa aztertu dugu eta honako alderdi orokor hauek bereizi ditugu:

- Kontratazio-mahaiak egiaztatu beharko luke kaudimen-baldintzak betetzen direla kontratuak esleitzeko proposamena egin ondoren.
- Aztertutako espedienteetako Baldintza Administratibo Berezien Agiriek ez dute aurreikusten, lizitatzailerak bakarrik dagoenean, eskaintzak balio anormalak edo neurritz kanpokoak dituen baloratzeko modurik.

Hona hemen azaleratutako beste alderdi batzuk (ikus A.14):

- 518.400 euroan esleitutako Kultura eta Jaietako programazioa prestatu, gauzatu, koordinatu eta dinamizatzeko laguntza teknikoak xede duen kontratuaren pleguetan (2. espedienteak) aurreikusten da enpresa esleipenduneko langileek, udal-egoitza fisikoak erabiliko dituztela eta, zenbait egoeratan, langile horiek kontratuaren udal-arduradunaren jarraibideak bete beharko dituztela; ordea, Udalaren eta enpresa esleipendunaren arteko harremana soilik esleipendunaren koordinatzailearen bidez egin behar da.
- Lope de Vega eta Danok Bat kaleak urbanizatzeko obren kontratuan, 261.661 euroan esleitutakoan (8. espedienteak), esleipenaren oinarri den txosten teknikoak Baldintza Administratibo Berezien Agirietan zehaztu gabeko alderdiak balioesten ditu (topografo bat egotea, komunikatzaileak beste zeregin batzuk egitea...).
- Aztertutako 4 espedientetan (2, 5, 6 eta 7 zk. espedienteak), 1,9 milioi eurotan esleitutakoetan, Kontratatzailearen Profilean ez da argitaratu kontratazio-mahaiaren osaera.
- 4,6 milioi euroan egindako 2 kontraturen esleipena, (1. eta 8. espedienteak), proposamenak ireki zirenetik bi hilabeteko gehienezko epea gairatuta gauzatu da, eta beste 2 kontraturen esleipenean (6. eta 7. espedienteak), 1,1 milioi eurorenak, 5 laneguneko epea gairatu da, aurreko baldintzak betetzen zirela egiaztatzen zuten agiriak jaso zirenetik.
- Hernán Cortés eta Francisco Pizarro kaleen arteko loturan irisgarritasuna hobetzeko obra-kontratua, 374.086 euroan esleitua (9. espedienteak), aurreikusitako epea baino 9 hilabete gehiago luzatu da, eta kontratazio-organoak ez du kontratua luzatzea onartu.

Beste batzuk (Ikus A.14)

- Udalak kontratu txiki modura 345.558 euroren ondasun eta zerbitzuen kontratuak izapidetu ditu, hirugarrenekin gauzaturakoak; ordea, horietarako loteetan edo aleko prezioetan egin liteke lizitazioa, ohikotasunez kontratatzen diren gastuak direlako eta horien urteko beharra aurreikus daitekeelako.



III.1.4 BERANDUTZA ETA BESTE ALDERDI BATZUK

- 2020an ez da egin merkataritza-eragiketen ordainketa-epeak betetzen direlakoari buruzko hiru hilean behingo txostenik, ez eta hiru hilabetetik gorako epean aitortu edo kontabilizatu ez diren erregistratutako fakturei buruzko txostenik ere, Udalari eta Udal Haurtzaindegia Erakunde Autonomoari buruzkoak.
- Udalak eta Udal Haurtzaindegia erakunde autonomoak ez dute hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea argitaratzen beren webgunean.
- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, Udalak webgunean argitaratu behar lituzke, besteak beste, aurrekontuen gauzatze-egoerari buruzko informazio eguneratua, aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetze-mailari buruzkoa, urteko kontuei buruzkoa eta goi-kargudunen eta konfiantzazko langileen ordainsariei buruzkoa. - Udal Haurtzaindegia erakunde autonomoak ez du bere webgunean gardentasun-ataririk edo estekarik kontratu txikiei, aurrekontuen gauzatze-egoerari eta urteko kontuei buruzko informazioa argitaratzen duen udaletxeko atarirako.
- Udalak ez du hirigintzako hitzarmenen erregistrorik.

III.2 SOZIETATE PUBLIKOAK

III.2.1 KONTRATAZIOA

Udalaren kontratazio administratiboa aztertu dugu eta honako alderdi hauek bereizi ditugu (ikus A.15.2):

- SURPOSak esleitutako industriako errentamendu-espeditentean, lehen urtean 60.000 euro egin dituen urteko errentarekin (3. espeditentea), ABBAek ez dituzte definitzen esleipen-irizpide jakin batzuei dagozkien alderdi zehatzak (ekipamenduen eta instalazioen hobekuntzak, luzapen-aldiari dagozkion errenten eguneratzea eta zerbitzuaren eraginkortasuna edo eraikinaren hobekuntza eta funtzionaltasuna bermatzen duen beste edozein prestazio gehigarriren balorazioa).
- Guztira 1,4 milioi euro egin duten DEMUPORSaren espediente bateko eta SURPOSaren beste espediente bateko Baldintza Administratibo Berezien Agiriek (1. eta 2. espedienteak) ez dute aurreikusten, lizitatzailerak bakarrik dagoenean, eskaintzak balio anormalak edo neurritz kanpokoak dituen baloratzeko modurik. Gainera, ez dira argitaratzen Kontratatzaileraren Profilean formalizatutako kontratuak.

III.2.2 BESTE BATZUK

- Udal sozietate publikoek urtero euren kontuen kanpoko auditoria kontratatzen dute, baina soilik alderdi finantzarioei dagokienez, eta ez dira gainerako kontrol-moldeak gauzatzen, kontu-hartzailearen kontrola barne hartuta (legezkotasuna, efikazia eta efizientziaren kontrol ekonomikoa eta antolamendukoa) Bizkaiko tokiko aurrekontu-araudian xedatutakoaren arabera gauzatu behar direnak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- DEMUPORSAk 2020ko ekitaldian, Galera eta Irabazien kontuan ustiapen-dirulaguntza gisa 2,3 milioi euro erregistratu ditu, Udaletik jasotako urteko ekarpenei dagozkienak; ordea, Bazkideen ondare garbiko bestelako ekarpenen kontuan erregistratu behar ziratekeen. Defizit hori, nagusiki, prezio publikoak aplikatzeetik dator.
- DEMUPORSAREN 2020ko ekitaldiko inbentarioa ez du Akziodunen Batzorde orokorrak onartu.

DEMUPORSAk ez ditu Ibilgetuan erregistratu La Florida futbol zelaiko instalazioei eta Industriaren Museoa (Rialia) hartzen duen eraikinaren zati bati dagozkien atxikitako ondasunak. Orobat, SURPOSak ez ditu erregistratu Udalak atxikitako Salazargo Dorreko lokalak eta jatetxea, ezen atxikipen-erabaki horiek ez baitute dagokion baloraziorik.

- DEMUPORSAk eta SURPOSak finantza-erakundeekin dituzten kontu-korronteetan funtsak baliatzeko baimendutako sinadura pertsona bakar batek du. Funtsak egoki kudeatzeko baimen hori jende gehiagori luzatu behar zaio eta sinadura horiek mankomunatuak behar dute izan.
- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, DEMUPORSAk eta SURPOSak euren webgunean, besteak beste, honako hauei buruzko informazio gaurkotua argitaratu behar lukete: dirulaguntzak eta emandako laguntza publikoak; urteko kontuak; kontuen auditoretzako txostenak; eta erakunde bakoitzeko arduradunen ordainsariak.



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Ondotik, Udalak 2018-2020 aldiaren zehar likidatutako magnitude nagusien bilakaera erakutsiko dugu.

FINANTZAREN ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak/biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2018 (*)	2019 (*)	2020	2018 (*)	2019 (*)	2020
Zergak (1. eta 2. kap.)	9.093	9.163	9.297	198	200	203
Tasak eta bestelako sarrerak (3. kap.)	7.152	7.760	7.527	156	170	165
Transf. eta dirul. korr. (4. kap.)	32.045	35.150	32.558	699	768	712
Ondare sarrerak (5. kap.)	85	90	86	2	2	2
A. Sarrera korr.	48.375	52.163	49.468	1.055	1.140	1.082
Pertsonaleko gastuak (1. kap.)	18.553	18.526	19.168	405	405	419
Ondasun korr. eta zerb. erosc. (2. kap.)	18.136	19.643	18.906	396	429	413
Transf. eta dirul. korr. (4. kap.)	5.667	6.523	7.035	124	143	154
B. Funtzionamendu-gastuak	42.356	44.692	45.109	925	977	986
Aurrezki gordina (A-B)	6.019	7.471	4.359	130	163	96
-Gastu finantzarioak (3. kap.)	(135)	(102)	(53)	(3)	(2)	(1)
Emaitza korr.	5.884	7.369	4.306	127	161	95
-Maileguen amortizazioa (9. kap.)	(750)	(4.150)	(550)	(16)	(91)	(12)
Aurrezki garbia	5.134	3.219	3.756	111	70	83
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.)	-	134	206	-	3	5
Jasotako kapital dirulaguntzak (7. kap.) 7)	45	479	239	1	10	5
-Inbertsio errealak (6. kap.)	(1.032)	(1.477)	(1.908)	(23)	(32)	(42)
-Emandako kapitalezko dirulaguntzak (7. kap.)	-	(129)	(24)	-	(3)	(1)
Kapital-eragiketen emaitza	(987)	(993)	(1.487)	(22)	(22)	(33)
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.) ...	4.897	6.376	2.819	105	139	62
Diruzaintza Geldikina	10.272	11.836	13.725	224	259	300
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina	6.378	7.877	9.210	139	172	201
Zorpetzea	12.800	8.650	8.100	279	189	177

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera korranteak: % 2,3 egin dute gora 2018koen aldean eta % 5,2 jaitsi dira 2019ko ekitaldiaren aldean. 2020an gertatu diren aldaketa nagusiak honako hauek izan dira:

- **Zergak:** igo egin da EIOZaren diru-bilketa, izan ere jarduera handiagoa izan da etxebizitza berrien 2 eraikin eraikitze obra lizentzien ondorioz, guztira 295.115 euroan. Igoera hori, baina, berdindu egin da HLBIZaren gaineko zerga % 3,1 murriztu delako eta JEZaren ordainagiri kopurua txikitu delako; horren guztiaren ondorioz, 2020ko eskubide aitortuak % 9,7 murriztu dira 2019koen aldean.
- **Tasak eta bestelako sarrerak:** % 3ko gutxitu dira adinekoen zentroak martxotik ekainera bitartean ixtea eragin zuen Covid-19aren ondorioz; alabaina, neurri batean, berdindu egin da galera hori Zabor eta Estolderia Tasa kontzeptuetan erregistratutako diru-sarrera handiagoeekin, 2020ko lau hiruhilekoei eta 2019ko azken hiruhilekoari dagozkien diru-sarrerak 2020an erregistratzean.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- **Transferentziak eta dirulaguntza korronteak:** % 7,4 murriztu ziren, batetik, 2020an Udalkutxaren konturako ekarpenak erregistratu izanaren ondorioz, izan ere 2019ko ekitaldian, konturako ekarpenez gain, 2018ko ekitaldiko likidazio positiboa ere erregistratu baitzen. Bestalde, aurreko murrizketa, hein batean, Eusko Jaurlaritzak COVID-19ak eragindako beharrianak artatzeko GLLen kontzeptuan egindako transferentziaren ezohiko ekarpenak -398.851 euro- konpentsatu du; baita Lanbideren transferentzien igoerak ere, 2019koen aldean 540.087 euro handiagoak izan baitira.

Funtzionamendu-gastuak: % 6,5eko igoera izan da aztertutako epean, eta 2020an aurreko ekitaldiaren aldean % 0,9koa izan da igoera.

- **Pertsonaleko gastuak:** % 3,5eko igoera izan dute, Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legeak onartutako ordainsarien igoerak eta aldi baterako lan-kontratuko langileen igoerak eraginda.
- **Ondasun korronteen eta zerbitzuen kontratazioa:** % 3,7 egin dute behera, hainbat jarduera ezin egin izan baitziren Covid-19aren ondorioz (jaiak, ikuskizunak, etab.) eta argindarraren, uraren eta abarren kontsumoa txikiagoa izan zelako. Berebat, lehen sareko uraren kontsumoak eragindako gastuak ere behera egin zuen 2019an 2018ko ekitaldiko ordainagiriak erregistratu zirelako.
- **Transferentziak eta dirulaguntza korronteak:** % 7,8 egin dute gora 2019koaren aldean, batik bat, Covid-19aren ondorioz jardueren etenagatik merkatariei emandako laguntzen ondorioz (800.550 euro) eta GLLak gehitu izanaren ondorioz. Igoera horiek berdindu egin dira 2020an Ranzari Elbarri Psikikoen Aldeko Udal Mankomunitateari 2020an egindako 562.000 euroren ekarpen txikiagoaren ondorioz.

Aurrezki gordina eta garbia: aztertutako aldian, 1,7 milioi euro baino gehiago murriztu da aurrezki gordina, eta 3,1 milioi euro gehiago 2019arekin alderatuta, batez ere Udalkutxaren murrizketaren ondorioz eta pertsonaleko gastuen eta emandako transferentziak eta dirulaguntzak gehitu izanaren ondorioz. Aldiz, aurrezki garbia % 16,7 igo da 2019koaren aldean, ekitaldi horretan mailegu baten 3,4 milioi euroren alde aurreko amortizazio bat egin baitzen.

Kapital-eragiketen emaitza: 2020ko ekitaldiko kapital-eragiketen emaitzaren saldoa negatiboa da 1,5 milioi eurotan, eta beste administrazio publiko batzuen dirulaguntzekiko mendekotasun-indizea % 12,4 da (dirulaguntzengatiko diru-sarreraren eta kapital-eragiketengatiko gastuen arteko zatidura).

Ekitaldiko inbertsioetan azpimarratzekoa da hiru igogailuren eraikuntza, 592.895 euroren zenbatekoan.



Diruzaintza Geldikina: aztertutako aldian, Diruzaintzako Geldikina eta Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikina 3,5 milioi euro eta 2,8 milioi euro gehitu dira, hurrenez hurren.

Aurrekontuaren egonkortasuna: Udalaren Kontu-hartzaitzak txostena jaulki zuen Udalak, erakunde autonomoak eta sozietate publikoek 2020ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazio bateratuan aurrekontuaren egonkortasun, gastuaren arau, eta zorraren muga bete dutela egiaztatuz, eta bertan esaten da:

- Aurrekontuaren egonkortasun printzipioa bete da, 2020ko abenduaren 31n finantzaketarako gaitasuna baitzuen.
- Gastuaren araua bete da, 2020ko gastu zenbagarriak ez baitu igoyerarik izan 2019ko gastu zenbagarriaren aldean.
- Finantza-iraunkortasunaren printzipioa bete da, izan ere, zor komertzialari dagokionez, ordaintzeko batez besteko aldia 13 egunetik beherakoa izan zen 2020ko abenduaren 31n, eta zor publikoari dagokionez, egiaztatu da 2020ko abenduaren 31n finantza-zorraren maila, diru-sarrera ez-finantzarioei dagokienez, % 16,37koa izan dela, hasieran onartutako % 60ko muga baino txikiagoa.

Ondorioa: Udalak 4,7 milioi euro murriztu du zorra, 2018ko ekitaldian likidatutako diru-sarrera arrunten % 26,5 izatetik 2020ko ekitaldian % 16,4 izatera aldatuz; Diruzaintza Geldikina, berriz, 10,3 milioi eurotik 13,7 milioi eurora igo da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

DIRU-SARR.	AURREKONTUA				ESKUB. KITAT.	KOB.R. KOB.R.	KOB.R. GABE	%
	ERANSK.	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.				
1. Zerga zuzenak.....	A.3	8.155	-	8.155	8.661	8.219	442	106
2. Zeharkako zergak.....	A.3	325	-	325	636	612	24	196
3. Tasak eta bestelako sarrerak.....	A.3	6.595	(46)	6.549	7.528	6.235	1.293	115
4. Transferentzia arruntak.....	A.4	33.518	137	33.655	32.558	30.921	1.637	97
5. Ondare-sarrerak.....		179	-	179	85	76	9	47
6. Inbertsio errealeen besterentzea.....	A.5	-	-	-	206	206	-	-
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.4	28	24	52	239	16	223	460
8. Aktibo finantzarioak.....		-	3.528	3.528	-	-	-	-
GUZTIRA		48.800	3.643	52.443	49.913	46.285	3.628	95

Euroak milakotan

GASTUAK	AURREKONTUA				OBLIG. AITORT.ORDAINK.	EGITEKE ORDAIN.	%	
	ERANSK.	HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.				
1. Pertsonaleko gastuak.....	A.6	19.455	784	20.239	19.168	18.766	402	95
2. Ondasun korronteen eta zerb. kontr.at.....	A.7	20.696	339	21.035	18.906	15.599	3.307	90
3. Gastu finantzarioak.....	A.10	53	-	53	53	53	-	100
4. Transferentzia korronteak.....	A.8	6.315	1.575	7.890	7.035	6.494	541	89
5. Kontingentzia funtsa.....		70	(63)	7	-	-	-	-
6. Inbertsio errealak.....	A.9	1.576	984	2.560	1.908	1.386	522	75
7. Kapitalezko transferentziak.....	A.8	85	24	109	24	24	-	22
9. Pasibo finantzarioak.....	A.10	550	-	550	550	550	-	100
GUZTIRA		48.800	3.643	52.443	47.644	42.872	4.772	91
SARRERAK - GASTUAK					2.269			

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	HASIERAKO		ZUZENK. BALIOG.	KOB.R. ORDAINK.	AZKEN ZORRA
	ERANSK.	ZORRA			
Zordunak.....	A.11	3.840	380	1.546	1.914
Hartzekodunak.....		5.513	-	5.476	37
GUZTIRA			380		



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak	49.913
Obligazio aitortuak	(47.644)
Aurrekontu itxietan eskubideen bariazioa	(380)
Obligazioen baliogabetzea aurrekontu itxietan.....	-
AURREKONTUAREN EMAITZA	1.889
Diruzaintza-geldikinarekin finantzatutako oblig.....	1.932
Finantzaketako desbideratzeak.....	(624)
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	3.197

DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza (A.12).....	14.748
Aurrekontuko zordunak (A.11).....	5.542
Aurrekontukoak ez diren zordunak (A.13)	217
Aurrekontuko hartzekodunak	(4.809)
Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak (A.13).....	(1.974)
DIRUZAINZTA GELDIKINA GUZTIRA 2020.12.31-N	13.724
Kaudimen-gabeziatarako hornidurak (A.11).....	(2.013)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina (A.4).....	(2.502)
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA GELDIKINA 20/12/31N	9.209

ZORPETZEA	Euroak milakotan
20.12.31N ZORPETZEA (A.10)	8.100
GUZTIRA	8.100

BALANTZEA 2020 eta 2019ko abenduaren 31n				Euroak milakotan		
AKTIBOA	ERANSK.	2020	2019	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2020	2019
AKTIBO EZ KORRONTEA		156.163	156.468	ONDARE GARBIA	159.732	157.579
Ibilgetu ukiezina	A.9	84	108	Ondarea	180.920	180.920
Ibilgetu materiala	A.9	75.936	76.279	Sortutako ondarea	(21.188)	(23.341)
Lurraren Ondare Publikoa	A.9	69.291	69.229			
Finantza inbertsioak e/luz.....	A.9	10.852	10.852			
				PASIBO EZ-ARRUNTA	7.557	8.102
				E/luzeko zorrak	7.557	8.102
AKTIBO KORRONTEA		18.533	17.365	PASIBO KORRONTEA	7.407	8.152
E/lab. kobratzeko zordunak		3.715	2.142	Zorrak epe lab.....	1.822	1.731
Finantza inbertsioak e/lab.		70	39	Hartzek. eta ord. bst kontu batz.	5.585	6.421
Eskud. ta bst. aktibo likido batzuk	A.12	14.748	15.184			
AKTIBOA, GUZTIRA		174.696	173.833	ONDARE GARB. ETA PASIB., GUZTIRA	174.696	173.833



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2020 ETA 2019	Euroak milakotan	
	2020	2019
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak.....	15.261	15.094
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak.....	32.728	35.622
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa.....	971	1.088
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b.....	710	864
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	49.670	52.668
Personaleko gastuak.....	(19.170)	(18.526)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak.....	(7.058)	(6.653)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk.....	(18.842)	(19.646)
Ibilgetuaren amortizazioa (A.9).....	(1.724)	(2.440)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(46.794)	(47.265)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	2.876	5.403
Balio nariadura eta ibilgetua bester. emaitza ez finantz.	(489)	(2.322)
Arruntak ez diren beste partida batzuk	84	833
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZA	2.471	3.914
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA	17	303
EKITALDIKO EMAITZA	2.488	4.217

AURREKONT- EMAITZ. ETA ONDARE-EMAITZAREN ARTEKO BERDINKATZEA	Euroak milakotan	
EKITALDIKO AURREKONTUKO EMAITZA		2.269
+ Gehik.		9.779
6. kapituluko obligazioak Inbertsio errealak.....	1.908	
9. kapituluko obligazioak Pasibo finantzarioak.....	550	
413 kontuari ezarritako obligazio korronteak (A.7).....	64	
Sarrerren itzulketagatiko hartzekodunak.(4180 kontuko hasierako saldoa).....	7	
Ibilgetutik eratorritako mozkina.....	5.209	
Aplikaturako kaudimengabeziag. hornidura, aurreko ekit. hornid. txikia.....	2.041	
(-) Murrizketak		(9.560)
Sarrerren itzulketagatiko hartzekodunak.(4180 kontuko hasierako saldoa).....	(80)	
Beste erakunde batzuekiko galerak, 6671 kontua (Eskubide deuseztatuak).....	(45)	
Ibilgetu materiala amortizatzeke zuzkidura (A.9).....	(1.724)	
Ibilgetu materialetik sortutako galerak.....	(5.698)	
Ekitaldiko kaudimengabeziatarako zuzkidura.....	(2.013)	
ONDARE-EKITALDIAREN EMAITZA		2.488



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 UDAL HAURTZAINDEGIA ERAKUNDE AUTONOMOA

2020KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

DIRU-SARR.	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUB. KITAT.	KOB.R.	EGITEKE KOB.R.	%
		HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.				
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	180	-	180	81	81	-	45
4. Transferentzia korranteak	A.4	605	-	605	560	560	-	93
GUZTIRA		785	-	785	641	641	-	82

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.ORDAINK.	EGITEKE ORDAIN.	%	
		HASIERAK.	ALDAK.	BEHIN BET.				
1. Pertsonaleko gastuak.....	A.6	695	-	695	586	574	12	84
2. Ondasun arrunten eta zerb. kontratazioa ..	A.7	88	-	88	55	47	8	63
6. Inbertsio errealak		2	-	2	-	-	-	-
GUZTIRA		785	-	785	641	621	20	82
SARRERAK - GASTUAK								-

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	EGITEKE HASIERAK.	ZUZENK. BALIOG.	KOB.R. ORDAINK.	EGITEKE ZORRA
Hartzekodunak.....	38	-	38	-
GUZTIRA		2		

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

Eskubide kitatuak	641
Obligazio aitortuak	(641)
Aurrekontu itxietan eskubideen bariazioa	(2)
Obligazioen balio gabetzea aurrekontu itxietan.....	-
AURREKONTUAREN EMAITZA	(2)
Diruzaintza-geldikinarekin finantzatutako oblig.....	-
Finantzaketako desbideratzeak.....	-
AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA	(2)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza	278
Aurrekontuko zordunak	5
Zordun ez aurrekontukoak	-
Aurrekontuko hartzekodunak	(20)
Hartzekodun ez aurrekontukoak	(68)
DIRUZAINZA GELDIKINA GUZTIRA 20.12.31-N	195
Kaudimen-gabez. zuzkidura	(5)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako diruzaintza-geldikina	-
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA 20/12/31-N	190

BALANTZEA 2020 eta 2019ko abenduaren 31n			Euroak milakotan		
AKTIBOA	2020	2019	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2020	2019
AKTIBO EZ ARRUNTA	16	17	ONDARE GARBIA	206	206
Ibilgetu materiala	16	17	Ondarea	34	34
			Sortutako ondarea	172	172
AKTIBO KORRONTEA	278	251	PASIBO KORRONTEA	88	62
E/lab. kobratzeko zordunak	-	2	Hartzek. eta ordaintzeko. bst kontu b.	88	62
Eskud. eta bst. aktibo likido batzuk	278	249			
AKTIBOA, GUZTIRA	294	268	ONDARE GARBIA ETA PASIB., GUZTIRA	294	268

ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA 2020 ETA 2019	Euroak milakotan	
	2020	2019
Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	560	628
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa	81	186
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	641	814
Pertsonaleko gastuak	(586)	(637)
Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	(55)	(91)
Ibilgetua amortizatzea	(2)	(1)
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(643)	(729)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	(2)	85
Balio narriad. eta ibilgetu ez finantz. bester. emaitza	-	-
Arruntak ez diren beste partida batzuk	-	-
ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA	(2)	85
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA	5	1
EKITALDIKO EMAITZA	3	86



V.3 SOZIETATE PUBLIKOAK

BALANTZEA 2020 eta 2019ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	DEMUPORSA		SURPOSA	
	2020	2019	2020	2019
AKTIBO EZ ARRUNTA	21.290	22.289	9.386	9.432
lbilgetu ukiezina	-	6	-	-
lbilgetu materiala	21.290	22.283	6.484	6.646
lbilgetuko inbertsioak	-	-	2.764	2.631
Merkataritzako zordun ez korronteak.....	-	-	138	155
AKTIBO KORRONTEA	1.335	1.773	3.514	4.255
Izakinak	-	-	2.582	3.127
Merkatar. zordun. eta kobratzeko knt.	496	560	24	31
Finantza inbertsioak e/lab.	419	886	302	502
Aldizkakotzeak e/lab.....	-	-	7	8
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak....	420	327	599	587
AKTIBOA	22.625	24.062	12.900	13.687
ONDARE GARBIA	22.036	23.349	11.993	12.628
Funts propioak	2.396	2.750	11.925	12.550
Kapitalezkoak.....	3.847	3.847	7.005	7.005
Erreserbak.....	621	621	1.996	1.996
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	(1.718)	(1.614)	-	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....	-	-	3.549	4.092
Ekitaldiko emaitza	(354)	(104)	(625)	(543)
Balio aldatagatiko doiketak	36	53	-	-
Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.	19.604	20.546	68	78
PASIBO EZ-KORRONTEA	31	70	649	667
Epe luz. zuzkidurak.....	7	34	-	-
E/luzeko zorrak.....	24	36	-	-
e/luz. aldizkakotzeak	-	-	649	667
PASIBO KORRONTEA	558	643	258	392
Zorrak epe lab.	-	-	78	38
E/lab. zuzkidurak	28	27	40	40
Taldeko enpresa eta elkartuekiko zorrak.....	9	195	-	-
Merkat. hartzek. eta ord. bst. kntu batzuk.....	521	421	71	227
Aldizkakotzeak e/lab.....	-	-	69	87
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	22.625	24.062	12.900	13.687



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2020KO EKITALDIETAKO EMAITZEN KONTUA

Euroak milakotan

	DEMUPORSA		SURPOSA	
	2020	2019	2020	2019
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	869	1.709	258	302
Izakinen bariazioa.....	-	-	(545)	(436)
Enpresak aktiborako egindako lanak	-	-	249	206
Hornikuntzak	-	-	-	(70)
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	2.429	2.328	535	533
Pertsonaleko gastuak.....	(674)	(759)	(601)	(592)
Bestelako ustiapen gastuak.....	(2.679)	(3.285)	(268)	(305)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(1.023)	(1.031)	(270)	(227)
Ibilgetu ez finan. dirulagun. egoztea	966	954	10	10
Ibilg. besterentz. narriadura eta emaitza	-	(1)	2	32
Beste emaitza batzuk.....	(266)	(26)	2	-
USTIAPENAREN EMAITZA	(378)	(111)	(628)	(547)
EMAITZA FINANTZARIOA	24	7	3	4
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(354)	(104)	(625)	(543)
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	-	-
EKITALDIKO EMAITZA	(354)	(104)	(625)	(543)

ERANSKINAK

A.1 ERAKUNDE FISKALIZATUAREN IZAERA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA

Portugaleteko udalerrria administrazioko toki erakundea da eta oinarritzko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, arautzen dute.

Oinarrien lege horrek, II. tituluko III. kapituluan, udalerriek dituzten eskumenak eta ematen dituzten zerbitzu publikoak zehazten ditu, besteak beste, honako hauek: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, hiriko garraio kolektiboa, suteak itzaltzea, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina eta kultura- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzuak zuzenean eman ditzakete bai toki-erakundeak berak, bai erakunde autonomoek, enpresa erakunde publikoek, berak sortutako tokiko merkataritzako sozietate publikoek, edo zeharka, kontratazio publikoari buruzko legedian aurreikusitako molde ugariak baliatuta. Gainera, toki-erakundeak bere eskumeneko zerbitzuak ematen ditu bera partaide den partzuergoen bidez.

Ekitaldian ezargarria den ekonomia eta kontularitzari buruzko araudi nagusia honako hau da:

- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki-erakundeen aurrekontuei buruzkoa.
- 9/2005 Foru Araua, abenduaren 16koa, Toki Ogasunei buruzkoa.
- 139/2015 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, Bizkaiko toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onesten duena.
- 2020ko ekitaldiko Aurrekontua Egikaritzeko Udal Araua.



A.2 AURREKONTUA ETA AURREKONTUKO ALDAKETAK

2020ko ekitaldirako aurrekontua 209ko azaroaren 20ko Udalbatzak onetsi zuen hasiera batean. Jendaurrean azaltzeko epea igaro ondoren eta erreklamaziorik batere izan ez zenez gero, behin betiko onartu zen eta 2019ko abenduaren 19ko BAOn argitaratu.

Aurrekontuko Aldaketak

Hona hemen Udalak 2020ko ekitaldian egindako aurrekontuko aldaketen xehakapena kapituluka:

KAPITULUA	Euroak milakotan						ALDAK. GUZTIRA
	KREDITU TXERTAK	KREDIT. GEHIGARRIAK	KREDITU GAIKUNTZA	BALIOG. BAJAK	TRANSFERENTZIAK		
					NEG.	POS.	
1. Pertsonaleko gastuak.....	670	-	29	(33)	(10)	128	784
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen kontr.	195	277	93	(47)	(621)	442	339
4. Transferentzia korranteak	199	980	409	-	(94)	81	1.575
5. Kreditu glob. eta ustekabekoak.....	-	-	-	-	(63)	-	(63)
6. Inbertsio errealak.....	763	444	25	(361)	(3)	116	984
7. Kapitalezko transferentziak.....	-	-	-	-	-	24	24
GASTUAK, GUZTIRA	1.827	1.701	556	(441)	(791)	791	3.643
3. Tasak eta bestelako sarrerak	-	-	-	(46)	-	-	(46)
4. Transferentzia korranteak	-	-	532	(395)	-	-	137
7. Kapitalezko transferentziak.....	-	-	24	-	-	-	24
8. Aktibo finantzarioak	1.827	1.701	-	-	-	-	3.528
SARRERAK, GUZTIRA	1.827	1.701	556	(441)	-	-	3.643

Aurrekontuko aldaketek % 7,46ko igoera eragin dute. Aurrekontuko aldaketa esanguratsuenak geldikinen gehikuntzei eta kreditu gehigarriei dagozkie; horiek finantzatzen dira, bai atxikitako finantzazioa duten gastuetarako diruzaintzako geldikinarekin (1,2 milioi euro), bai gastu orokorretarako diruzaintzako geldikinarekin (2,3 milioi euro).

2020ko ekitaldiko Aurrekontuen likidazioa 2021eko martxoaren 5ean onartu zen Alkatetzaren Dekretu bitartez. Kontu Orokorraren aldeko txostena jaulki zuen Kontuen Batzorde Bereziak. Jendaurrean aurkezteko epea amaitu ostean, erreklamaziorik batere jaso gabe, 2021eko uztailaren 29an Udalbatzak onartu zuen.

A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen 2020ko ekitaldian zerga zuzen, zeharkako, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan kitaturiko eskubideen xehakapena:

Euroak milakotan	
KONTZEPTUA	ESKUBIDE KITATUAK
Ondasun higiezin gaineko zerga (OHZ)	5.118
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ)	2.146
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ)	776
Hiri izaerako lursailen balioaren igoeraren gaineko zerga (HILBIZ)	621
ZERGA ZUZENAK, GUZTIRA	8.661
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga (EIOZ).....	636
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	636
Zabor-bilketagatiko tasa	2.223
Estolderia tasa	576
Ur-hornidura tasa	2.047
Hirigintzako lizentziak emateagatiko tasa	164
Hornidura enpresek lurra, lur azpia eta lur gaina okupatzeagatiko tasa	292
Espaloietatik igarotzeagatiko ibilgailuen tasa	116
Kontserbatorioaren eta Musika Eskolaren prezio publikoa	80
Udal Euskaltegiaren prezio publikoa	122
Etxez etxeko laguntzaren prezio publikoa	261
Adinekoen eguneko zentroaren prezio publikoa	496
Telefoniako operadoreen konpentsazioa	92
Isunak eta zehapenak	109
Trafikoko isunak	198
Ecoembeseko diru-sarrerak	144
Aurreko ekitaldietako itzulketa.....	84
Beste sarrera batzuk (< 80 mila euro)	524
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	7.528
UDALAREN 1, 2 ETA 3 KAPITULUAK, GUZTIRA	16.825
Udal Haurtzaindegia EAren prezio publikoa	80
3. kapituluko beste sarrera batzuk	1
UDAL HAURTZAINDEGIA EA-REN 3. KAPITULUA, GUZTIRA	81



A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2020ko ekitaldian transferentzia eta dirulaguntza korronte eta kapitalezkoengatik kitatutako eskubideak honako hauek izan dira:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	KORRONTEA	KAPITALEZKOAK
ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRARENAK	55	-
EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRARENAK	2.139	219
Oinarrizko LH-ko prestakuntza ikastaroak	328	-
Otik 3 urte bitarteko haurrentzat udal haurreskolak.....	206	-
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL).....	966	-
Musika eskola finantzatzeko dirulaguntzak.....	165	-
Topagunerako dirulaguntza	157	-
Drogamenpekotasunerako dirulaguntza	105	-
Hernan Cortes kaleko hiri-igogailuko lanetarako dirulaguntza	-	119
General Castaños kaleko hiri-igogailuko lanetarako dirulaguntza.....	-	76
Beste batzuk (<50 M)	212	24
EAE-REN ENTE ETA SOZIETATE PUBLIKOENAK	2.197	-
HABE-Udal euskaltegia	635	-
Lanbide, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako.....	1.523	-
Kontsumobide.....	39	-
BIZKAIKO FORU ALDUNDIARENAK	28.145	-
Itunpeko zergak - Udalkutxa	27.209	-
Gizartekutxa eta AMAS:	640	-
COVID-19 Aparteko Gizarte Funtza	134	-
Beste batzuk	162	-
MANKOMUNITATE ETA PARTZUERGOENAK	-	19
BESTE ERAKUNDE PUBLIKO BATZUENAK	7	-
ENPRESENAK	15	1
UDALA GUZTIRA	32.558	239
UDALARENAK	560	-
Gastu korronteetarako transferentziak (ikus A.8)	560	-
UDAL HAURTZAINDEGIA EA GUZTIRA	560	-

Udalek zerga itunduen diru-bilketan esku hartzen dute (Udalkutxa). BFAk behin betiko diru-bilketaren konturako entregak egiten ditu eta hurrengo ekitaldiko otsailean likidatzen du. Udalak 2020an kontabilizatutako zenbatekoa bat dator ekitaldirako hasiera batean onartutako konturako ekarpenekin (30,2 milioi euro), ken 2020ko uztailetik abendura bitarteko hilekoei dagokien zenbatekoaren % 20 (3 milioi euro), BFAk 2020ko ekainaren 30ean hartutako akordioaren arabera. Udalak 2021ean erregistratu du bai 2019ko ekitaldiko likidazio positiboa, 902.821 euro, bai 2020ko likidazio negatiboa, 1,6 milioi euro, azken kasu honetan Diruzaintzako Geldikina baliatuta alde aurretik amortizatu ondoren, BFAko Diputatuen Kontseiluaren erabakiak ahalbidetzen zion 3 urtetan geroratzeko aukera baliatu beharrean.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hona hemen finantzaketako desbideratze positiboen xehakapena 2020ko abenduaren 31n:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	SARRERAK		GASTUAK		DESBIDERATZEA
	LEHENAG.	2020	LEHENAG.	2020	
SS1 zerbitzu-sektorea urbanizatzea	222	-	-	-	222
Ballonti hiribidean merkataritz. lokalak besterentzea	344	-	-	-	344
2019ko ustekab.: zentr.l pneum. urak hartzea (% 72)	264	-	-	(294)	52
Enplegu-planak 2020 Soldata-kostuak (% 100)	-	1.302	-	(26)	1.276
Enplegu-planak 2020 Lan-kontrataz. lag. (% 100)	-	220	-	-	220
3R Programa, Tokiko enplegua	-	83	-	-	83
Hirigintzako aprobetxamendua (ikus A.5)	-	206	-	-	206
Beste batzuk (<50 M)	-	-	-	-	99
GUZTIRA	830	1.811	-	(320)	2.502

A.5 INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA

Hona hemen Udalak 2020an aitortutako sarrereren xehakapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ESKUBIDE	KITATUAK
Hirigintzako aprobetxamendua		206
UDALA GUZTIRA		206

Castaños Jeneralaren kaleko lursailean 26 etxebizitza, merkataritza-lokal bat, garajeak eta trastelekuak eraikitzeko obren ondoriozko hirigintza-eraikigarritasunaren gehikuntzaren % 15eko balioespenari dagokio, zeina dagokion obra-lizentzia ematean likidatu baitzen. Kopuru hori Finantzaketa atxikia duten gastuetarako diruzaintza geldikinaren atal da (Ikus A.4).



A.6 PERTSONALEKO GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehakapena Udalaren eta Udal Haurtzaindegia Erakunde Autonomoaren 2020ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2020ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	OBLIGAZIO AITORTUAK	Euroak milakotan	
		__LANPOSTU KOP.__ LZ 2020.12.31n	Plantilla
Goi kargudunen ordainsariak	422	-	7
Behin-behineko langileen ordainsariak	46	1	1
Funtzionarioen oinarritzko ordainsariak	2.320	168	157
Funtzionarioen ordainsari osagarriak	4.433		
Lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	2.912	170	165
Aldi baterako lan kontratuko langileen ordainsariak	4.094		(*) 137
Gizarte Segurantza	4.582		
Elkarkidetza.....	224		
Gizarte zerbitzuak.....	135		
UDALA GUZTIRA	19.168	339	467
Lan kontratupeko langileen ordainsariak.....	262	11	6
Aldi baterako lan kontratuko langileen ordainsariak	173	-	5
Gizarte Segurantza	143		
Elkarkidetza.....	8		
UDAL HAURTZAINDEGIA EA GUZTIRA	586	11	11

(*) Enplegua sustatzeko 115 programa-kontratu barne hartzen ditu.

Ordainsariak

2020ko ekitaldian enplegatu publikoei ordaindutako ordainsariak, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, urteko % 2 igo dira, sektore publikoaren esparruan ordainsarien arloko premiazko neurriak onartzen dituen urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

EPEak

Hona hemen 2015-2020 aldian onartu diren EPEetatik eratorritako hautaketa-prozesuak, deitu eta/edo ebatzi direnak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KATEGORIA	SARBIDEA	PLAZA KOP.	DEIALDIA	ESLEIPENA
EPE 2018				
Udaltzaingoko ofizial burua.....	Barne sust.	1	uzt-18	mai-20
Udaltzaingoko agentea	Lehi-opos	12	uzt-18	urt-21
EPE 2019				
Udaltzaingoko 1. agentea, txandako ardurad.....	Barne sust.	2	uzt-21	-
Udaltzaingoko agentea	Lehi-opos	(*) 4	apir-19	apir/urr 21
EPE 2020				
Udaltzaingoko agentea	Lehi-opos	(*) 2	urt-21	-
GUZTIRA		21		

(+) 3 eta 4 plaza gehiago izan ditzakete, hurrenez hurren.

2020ko uztailaren 10ean Tokiko Gobernu Batzordeak merezimenduen lehiaketa bidez Udaleko karrerako funtzionarioen artean 4 lanpostu betetzeko oinarri-arauak onartu zituen. Prozesu horiek 2020an eta 2021ean amaitu dira.

Altak eta bajak

Udalan ekitaldian izan diren alten eta bajen xehakapena honakoa da:

	Kopurua	
	ALTAK	BAJAK
Udalkideak (goi kargudunak).....	3	2
Funtzionarioak.....	22	22
Karrerako funtzionarioa	1	7
Plaza hutsaren gaineko bitartekoa	8	1
Beste bitarteko batzuk (ordezkapenak, programakoak, lanak gehitzea).....	13	14
Lan-kontratudunak	155	132
Finkoa.....	1	-
Plaza hutsaren gaineko bitartekoa	10	2
Beste lan-kontratu batz. (ordezkap., obra edo zerb., produkzioko inguruab.).....	27	36
Enplegua sustatzea	117	94
Errelebo kontratua	1	6
Erretiratu partzialak.....	1	6
UDALA GUZTIRA	182	168
Lan kontratudunak ordezkapenatarako, obra edo zerbitzua, produkzioko inguruabarrak.....	8	11
UDAL HAURTZAINDEGIA EA GUZTIRA	8	11

